

2015-04-28an EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 28-04-2015

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Rosario Arkauz Arkauz  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabosteko apirilaren 28an, arratsaldeko bostak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Landa eta Regidor andreak eta Petralanda eta Cantero jaunak.

En Eskoriatza, siendo las diecisiete horas y treinta minutos del día 28 de abril de 2015 en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten las Srs. Landa y Regidor y los Srs. Petralanda y Cantero.

**2015/04/28**  
**Ez Ohiko Osoko Bilkura**  
*Pleno extraordinario*

**1.- ESKOLA AGENDA 21: MUGIKORTASUNA. 2014/2015 IKASTURTEKO PROPOSAMENAK.**

Alkateak ongi etorria egin die bertaratutako guztiei, bereziki, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleei.

Hitza eman ondoren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleen ordezkariak 2014/2015 ikasturte honetan Eskola Agenda 21aren barruan mugikortasunari buruz Udalbatzarrari egiten dioten proposamenak aurkeztu dizkiote Udalbatzarri.

Proposamen horiek akta honen eranskin gisa doaz.

Aurkezpenaren ondoren, Alkateak eskertu egin du egindako lana, eta konpromisoa hartu du Udalak proposamen guztiak aztertzeko eta egingarriak direnak martxan jartzeko.

Ondoren, galdera eta eguneroko bizimoduko adibideekin (nola joaten diren eskolara galdetuz, bidegorria erabiltzen duten, elizateetara joaten diren...) ikasle guztiei dei egin die egunero lagundu diezaioten Udalari eta Eskoiratzen kutsadura eta zarata gutxitzeko ohiturak har ditzaten.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 17:40an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- AGENDA ESCOLAR 21: LA MOVILIDAD . PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2014/2015.**

El Alcalde da la bienvenida a todos los presentes, en especial a los alumnos/as de los centros escolares de Eskoriatza.

Concedida la palabra, representantes de los alumnos/as leen al Pleno la propuesta que en este curso escolar 2014/2015 hacen a la corporación en el marco del programa Agenda Escolar 21 y que versa sobre la movilidad.

Dicha propuesta se une como Anexo a la presente acta.

Tras la presentación, el Alcalde agradece la labor realizada y adquiere el compromiso de que el ayuntamiento analizará todas y cada unas las propuestas y de que se pondrán en marcha aquellas que sean factibles.

A continuación, sirviéndose de preguntas y ejemplos de la vida cotidiana (¿cómo se desplazan hasta la escuela?, si usan el bidegorri, si van a las anteiglesias,...) emplaza a todos los alumnos a que día a día colaboren con el ayuntamiento y adopten hábitos tendentes a minorar la contaminación y el ruido en el municipio de Eskoriatza.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:40 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

## ERNASKINA/ ANEXO

**Arratsalde on denoi:**

**Azken urteetan, bezala, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, Eskola Agenda 21 programaren bidez, gure herriko ingurumenaren egoera aztertzen aritu gara.**

**Aurten MUGIKORTASUNA landu dugu eta ateratako ondorioekin, udal honi zenbait proposamen egitera gatoz, mugikortasuna hobetzeko asmoz.**

**LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ziklokoak hasiko dira gure lanaren ondorioak azaltzen;**

Kaixo:

Lehenengo eta bigarren mailakoak,herriko kaletako zebrabide eta espaloiak aztertu ditugu eta hemen **gure ondorioak** :

- ✘ Kotxeak zebrabideetan ez dira askotan gelditzen.
- ✘ Kale gehienetan zebrabide nahiko dago bidea zeharkatzeko, Luis Ezeizan ezik. Hor zebra bidea ipini behar da.
- ✘ Jose Arana eta Aranburuzabala kaleetako espaloiak oso estuak dira eta oztopo asko dituzte, piboteak, seinaleak, batez ere
- ✘ Herri erdian ez dago bide gorririk.

### Gure eskaerak:

- ✘ Zebra bideetan gelditzea beharrezkoa dela azaltzeko kanpaña bat egin.
- ✘ Luis Ezeizako sarreran zebrabidea ipini.
- ✘ Jose Arana eta Aranburuzabala kaleetako espaloiak zabaldu eta oztopoak kendu, batez ere piboteak.

### Orain LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ziklokoen txanda da

Arratsalde on

Guk 2. zikloko Eskoriatzarren mugikortasun ohiturak aztertu genituen. Eta Eskoriatzarrok zertarako atera behar garen herritik. Honeik izan ziren emaitzak:

- ✘ 15minututan Eskoriatzako sarreratik **146 kotxe** pasatu ziren eta kotxe barruetan **201 pertsona** kontatu genituen.

Kontuak atera eta bataz beste, **1,38 pertsona autoko** atera zitzaigun.

- ✘ Kontu gehiago ere atera genituen eta kotxeak beteta joanda, 201 pertsona eramateko 5eko 41 kotxe behar dira eta 7ko 27.

146 kotxe pasa badira, beteta joanez gero 5eko 105 kotxe gutxiago eta 7ko 117 kotxe gutxiago beharko dira.

- ✘ Denbora berdinean Gorosarriko geltokian egon ginen beste talde bat eta bertan aztertu ikusi genuen **3 pertsona zeudela autobusari itxaroten**, pertsona horiek **Eskoriatzako 2 emakume eta gizon nagusi ziren**.

- ✘ Gurekin gurpil aulkia erabiltzen duten ikasle batzuk zeuden eta autobusean joateko aukerarik zuten ere galdetu genion autobus gidariari. Erantzun zigun **bidai bakoitzean gurpil aulki 1sartzen zela urbanoan eta Lineako autobusetan ibiltzeko 24 ordu lehenago abisatu behar zela.**
- ✘ Eskoriatzan bizi direnak, oinetakoak erosteko, lana egiteko eta ikasketa mota batzuk egiteko, atera behar direla Eskoriatzatik konturatu ginen.

Hau ikusita gero **hemen gure eskaerak:**

- ✘ Herri barrutik, bidegorria egitea, patinetez eta bizikletaz ibiltzeko, kotxea erabili ordez. Kanpotik doana konpontzea eta auzoetara zabaltzea.
- ✘ Denda gehiago ipini jendeak erosketak oinez, patinetez edo bizikletaz egiteko.
- ✘ Bizikletak, merke, alokatzeko tokiak ipini.
- ✘ Mugikortasunari lotutako udalekuak antolatu.
- ✘ Herritarrekin bilerak egin kotxea gutxiago erabiltzeko.
- ✘ Kotxeak konpartitzeko webgunea sortzea.
- ✘ Herriko leku batzuetan, motorra duten ibilgailuak debekatzea, kutsadura gutxitzeko
- ✘ Kotxeen zergak igotzea.
- ✘ Autobusa erabiltzera jendea animatu, kanpainak eginez, prezioa jetziz, sariak emanaz...
- ✘ Autobus geltokiak ranpak jaisteko egokitu.

- ✘ Fabrika desberdinetara joateko autobusak ipini.

### **LEHEN HEZKUNTZAKIN bukatzeko 3. ziklokoen proposamenak**

Kaixo denoi:

5. eta 6. mailako ikasleok Eskoriatza herri irisgarria den aztertu dugu. Horretarako mugikortasun egoera desberdinak dituzten pertsonen lekuan jarri gara, Itsuak, gurpil aulkian ibiltzen direnak, makuluak behar dituztenak, autistak, umeen karroekin doazenak, errenak, erosketak karroekin egiten dituztenak, ...

Herrian dauden zerbitzuetara iristeko, egoera desberdin hauetan dauden pertsonak eduki ditzaketan arazoak izan da aztertu duguna.

Atera ditugun **ondorioak** hauek izan dira:

- ✘ Eskoriatza ez dela herri irisgarria.
- ✘ Iristeko arazo gehien dituzten zerbitzuak, Unibertsitatea eta hilerria direla.
- ✘ Oztopo gehien dituen egoerak Itsuak eta gurpil aulkia erabiltzen dutenak direla
- ✘ Museo atzean dagoen kaleak ere, hainbat arazo aurkitu ditugu.

Eta mugikortasuna hobetzeko asmoz hauek gure **proposamenak**:

- ✘ Unibertsitatera iristeko soluzioren bat topatzea:

-. Dorleta auzotik sartzeko, hasieran espaloiak harmaila bat du eta bukaeran, zubira iritsi aurretik espaloia bukatu egiten da eta derrigorrez errepidera irten behar da.

-. Unibertsitateko sarrera nagusian eskailera asko daude.

-Parkinera sartzeko burdinazko maila bat gainditu behar da eta gurpil aulki elektrikoak ezin dute gainditu.

- ✘ Kanposantura joateko eskailera asko edo aldapa handia dago. Karreteratik joateko ez dago espaloirik eta beharrezkoa da.
- ✘ Museo atzetik liburutegira joateko, espaloiak falta dira, hainbat zatitan.
- ✘ Edozein tokira joateko itsuen ez daukate Brayles ezer idatzita, ONCEkin harremanetan jarri eta egoera hau konpontzea proposatzen dugu.
- ✘ Jose Arana eta Aranburuzabala kaleetako zebrabideak itsuendako egokitu behar dira.

Bukatzeko GAUTENAKin, autistetaz arduratzen den erakundearekin, harremanetan jarri eta piktogramakin, beraiendako ere herria egokitzea proposatzen dugu.

### **Orain BIGARREN HEZKUNTZAKO 1. ziklokoek, beraien proposamenak azalduko dituzte**

Kaixo. Guk mugikortasunak sortzen duen 2 kutsadura mota aztertu dugu:

Airearen kutsadura eta Zarata.

Airearen kutsadura aztertzeko, guretzako hain kaltegarriak diren mikro partikulak eta 15 minututan kotxeak isurtzen duten CO<sub>2</sub>a neurtu dugu, berau delako berotegi egektuaren eragile nagusia.

Likenak ere aztertu ditugu airearen kalitatea neurtzeko.

Hau egin ondoren hona gure ondorioak:

- ✘ 15 minututan 87773,5 gr CO2 isuri zen airera.
- ✘ Aurkitu ditugun likenak, LECANORA, XANTHORIA, eta PARMELIA izan dira. Honek adierazten du airearen kutsadura **ertaina** dela.
- ✘ Neurtu dugun zarata 47 decibeliotik 75era doa. Kontutan izanda 50 dezibeliotik gorako zarata gogaikarri izaten hasten dela, esan dezakegu herri nahiko zaratatsuan bizi garela.

Eta hemen gure eskaerak:

- ✘ Bizikleten erabilera bultzatzeko kanpaina bat egitea.
- ✘ Bizikletak uzteko/aparkatzeko toki gehiago jartzea.
- ✘ Herriaren erdian kotxeen abiadura moteltzea, bidegorri txiki bat egiteko.
- ✘ Kotxeendako bideak gutxitzea
- ✘ Ikastetxe inguruetako esparruak oinezkoendako bihurtzea.

## **Bukatzeko BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. ziklokoen proposamenak**

### **DBH 3**

Arratsalde on. Guk landu duguna, distantziak kontutan hartuta leku batetik bestera ibiltzeko zein den ibilgailurik egokiena. Ondorio hauetara iritsi gara:

.- Otik 3 Kmtara oinez edo bizikletan joan beharko ginatekeela.

.- 3kmtik 15era bitartean bizikletan edo autobusean.

.-15kmtik gora autobusean trenean edo kotxean, betiere kotxea beteta baldin badoa.

Honez gain herritik kanpora joateko dauden garraio erak aztertu ditugu eta hauek gure eskaerak:

- ✘ Goiko autobus geltokian, erdikoan gelditzen diren beste autobus gelditzea.
- ✘ Autobusak "sinkronizatuak" egotea.
- ✘ Herri barruan bizikletan ibiltzeko aukera ematea.
- ✘ Abiadura handiko trenak, gure lurraldeak suntzitzen dituelako, suntsitzen dituen lurraldeetan geltokia ipintzea.

**Honekin gure lana bukatzen dugu, eta orain, zuei pasatzen dizuegu txanda.**

**Arratsaldeon eta eskerrik asko.**

**2015/04/28**  
**Ez Ohiko Osoko Bilkura**  
*Pleno extraordinario*

**Buenas tardes a todos:**

**Como en los últimos años, los alumnos de los colegios de Eskoriatza, y mediante el programa Agenda Escolar 21, hemos estado analizando la situación del medio ambiente en nuestro municipio.**

**Este año hemos trabajado la movilidad, y con las conclusiones obtenidas venimos a hacer algunas propuestas a este Ayuntamiento con el fin de mejorar la movilidad en nuestro pueblo.**

**Comenzarán los alumnos del primer ciclo de Educación Primaria a exponer las conclusiones de nuestro trabajo.**

Hola:

Los alumnos de primer y segundo curso hemos analizado los pasos de cebra y aceras de la localidad, y estas son las conclusiones a las que hemos llegado:

- Muchas veces, los coches no paran en los pasos de cebra.
- En la mayoría de las calles hay suficientes pasos de cebra para cruzar la calle, menos en Luis Ezeiza. Es necesario poner un paso de cebra ahí.
- La aceras de las calles Jose Arana y Aranburuzabala son muy estrechas y están llenas de obstáculos, sobre todo, pivotes y señales.
- No hay bidegorri en el centro del pueblo.

**Nuestras peticiones:**

- Realizar una campaña para concienciar de que es necesario detenerse en los pasos de cebra.
- Colocar un paso de cebra en la entrada de Luis Ezeiza.
- Ampliar las aceras de las calles Jose Arana y Aranburuzabala, y quitar los obstáculos, sobre todo, los pivotes.

### **Es el turno de los alumnos del 2º ciclo de Educación Primaria**

Buenas tardes,

Nosotros, los del 2º ciclo, hemos estudiado las costumbres de los eskoriatzarras en torno a la movilidad, y para qué debemos de salir los eskoriatzarras de nuestra localidad. Estos han sido los resultados:

- En 15 minutos, pasaron 146 coches por la entrada de Eskoriatza, y en ellos contamos 201 personas.

Sacando las cuentas, nos sale un promedio de **1,38 personas por vehículo**.

- También hemos sacado más cuentas, y así, si los coches fueran completos, para llevar 201 personas serían necesarios 41 coches de 5 plazas o 27 coches de 7 plazas.

Si han pasado 146 coches, si hubieran ido llenos, serían 105 coches de 5 plazas menos o 117 coches de 7 plazas menos.

- Durante el mismo periodo otro grupo estuvo en la parada de Gorosarri y vimos que había 3 personas esperando el autobús: 2 mujeres y un hombre mayores de Eskoriatza.
- Con nosotros estaban algunos alumnos que utilizan silla de ruedas, y preguntamos al conductor del autobús sobre si pueden ir en autobús. Nos respondió que en los urbanos entra una silla de ruedas en cada viaje, y que para poder subir a un autobús de línea hay que solicitarlo con 24 horas de antelación.
- Nos hemos dado cuenta que los que viven en Eskoriatza deben de salir de la localidad para comprar zapatos, trabajar y realizar algunos tipos de estudios.

Visto lo anteriormente comentado, he aquí nuestras peticiones:

- Construir un bidegorri por dentro del pueblo para poder andar en patinete y bicicleta en vez de en coche. Arreglar el bidegorri que va por fuera y ampliarlo a los barrios.
- Poner más tiendas para que la gente haga las compras a pie, en patinete o en bicicleta.
- Poner lugares para alquilar bicicletas a un precio barato.
- Organizar udalekus relacionados con la movilidad.
- Realizar reuniones con los vecinos para utilizar menos el coche.
- Crear un sitio web para compartir el coche.

- Prohibir el uso de vehículos de motor en algunos lugares del pueblo para reducir la contaminación.
- Aumentar el impuesto sobre los vehículos.
- Animar a la gente a que utilice el autobús mediante campañas, bajando los precios, dando premios...
- Acondicionar las paradas de autobús para bajar rampas.
- Poner autobuses para ir a las distintas fábricas.

**PARA TERMINAR CON LOS ALUMNOS DE EDUCACIÓN PRIMARIA, aquí están las propuestas de los alumnos del tercer ciclo.**

Hola a todos:

Los alumnos de 5º y 6º curso hemos analizado si Eskoriatza es un pueblo accesible. Para ello, nos hemos puesto en el lugar de personas que tienen diferentes problemas de movilidad: ciegos, gente que utiliza silla de ruedas, los que necesitan bastones, autistas, los que utilizan silla de niños, cojos, los que utilizan carro de compras...

Hemos analizado los problemas que puedan tener estas personas a la hora de acceder a los servicios que se ofrecen en el pueblo.

Las conclusiones que hemos obtenido son las siguientes:

- Eskoriatza no es un municipio accesible.
- Los servicios que presentan mayores problemas de accesibilidad son la Universidad y el cementerio.

- Las personas que tienen más obstáculos son los ciegos y las que utilizan silla de ruedas.
- También hemos encontrado muchos problemas en la calle que está detrás del museo.

Estas son nuestras propuestas para mejorar la movilidad:

- Encontrar alguna solución para acceder a la Universidad.
- Para acceder desde el barrio Dorleta, al principio la acera tiene un escalón, y al final, antes de llegar al puente, se termina la acera y se hace obligatoria salir a la carretera.
- En la entrada principal a la universidad hay muchas escaleras.
- Para acceder al parking hay que subir una escalera de metal, y las sillas de ruedas eléctricas no pueden superarlo.
- Para ir al cementerio hay muchas escaleras o una cuesta grande. No hay una acera para poder ir por la carretera, y es necesaria.
  - Para ir al museo, por la parte trasera falta acera en varios tramos.
  - Para poder acudir a cualquier parte los ciegos no tienen nada indicado en Braille, proponemos que el Ayuntamiento se ponga en contacto con la ONCE y arregle esta situación.
  - Hay que adaptar para los ciegos los pasos de cebra de las calles Jose Arana y Aranburuzabala.

Para finalizar, nos hemos puesto en contacto con GAUTENA, asociación que cuida de los autistas, y proponemos adecuar el pueblo, mediante pictogramas, también para ellos.

**Ahora, los del 1er ciclo de EDUCACIÓN SECUNDARIA nos harán llegar sus propuestas.**

Hola. Nosotros hemos analizado 2 tipos de contaminación que produce la movilidad:

La contaminación aérea y la acústica.

Para analizar la contaminación del aire hemos medido las micropartículas que son tan nocivas para nosotros y el CO<sup>2</sup> que emiten los coches en 15 minutos, ya que es el mayor causante del efecto invernadero.

También hemos analizado los líquenes para medir la calidad del aire.

Estas han sido nuestras conclusiones:

- En 15 minutos se vertieron 87.773,5 gr de CO<sup>2</sup> al aire.
- Los líquenes encontrados han sido LECANORA, XANTHORIA y PARMELIA, que indican que la contaminación del aire es mediana.
- El ruido medido va de 47 decibelios a 75. Teniendo en cuenta que a partir de los 50 decibelios el ruido empieza a ser molesto, podemos decir que vivimos en un pueblo bastante ruidoso.

Nuestras peticiones:

- Realizar una campaña para impulsar el uso de la bicicleta.
- Poner más lugares para aparcar/dejar la bicicleta.

- Reducir la velocidad de los coches en el centro del pueblo para realizar un pequeño bidegorri.
- Reducir las carreteras para coches.
- Peatonalizar las áreas cercanas a los colegios.

**Para finalizar, las propuestas de los alumnos del 2º ciclo de Educación Secundaria.**

### **3º ESO**

Buenas tarde. Nosotros hemos analizado cual es el vehículo más adecuado para ir de un sitio a otro teniendo en cuenta las distancias. Hemos llegado a las siguientes conclusiones:

- .- De 0 a 3 Km debiéramos de ir andando o en bicicleta.
- .- De 3 km a 15, en bicicleta o autobús.
- .- De 15 km para arriba, en autobús, tren o coche, siempre y cuando el coche vaya lleno.

Además, hemos analizado los medios de transporte que hay para desplazarse fuera del pueblo, y estas son nuestras peticiones:

- Que en la parada de arriba se paren tantos autobuses como en la del medio.
- Que los autobuses estén sincronizados.
- Posibilitar que dentro del pueblo se pueda andar en bicicleta.
- Que el tren de alta velocidad, que destroza nuestro territorio, tenga paradas en los pueblos en que destroce el territorio.

**Con esto finalizamos nuestro trabajo, y ahora es vuestro turno.**

**Buenas tardes, y muchas gracias.**

**2015/04/28**  
**Ez Ohiko Osoko Bilkura**  
*Pleno extraordinario*